

noaua

**Autodefentsa feminista
ikastaroa Potxoenean**

**Mendekotasun arazoan
prebentziorako plan berria
abiarazi du Udalak**

**55 usurbildar,
25. Lilatoian**



**Espetxe Pastoralta,
preso sozialez arduratzen den taldea**



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es



2014
**LABUR
BIRA**

FILM LABURREN XI.ZIRKUITUA
MARTXOAK 20 osteguna, 19:00etan SUTEGIN



Albisteak iruditan

Herritik urrun, konponbidea lantzen

Euskal Herrian irekita dagoen prozesuari euskal preso eta iheslariaren kolektiboek eginiko ekarpenen berri eman zen, Aitzaga Elkarteak martxoaren 6rako Sutegin antolatu zuen hitzaldian. Egun gatazkak bizi duen blokeo egoera nola gainditu zitekeen, egindakoez eta egiteko dagoenaz, datorrenaz ere jardun zuten, Amaia Izko abokatu eta Sortuko bozeramaileak, Juan Karlos Ioldi preso ohi eta Herrera taldeko kideak eta baita hamarkaden ostean, herritik urrun bizitzen jarraitzen duen Xabier Mikel Ezkerrak. Garaiotan ditugun teknologia berriei esker, zuzenean parte hartu ahal izan zuen usurbildarrak Sutegiko hitzaldian, bideokonferentziaz. Gai honi buruzko zehaztasun gehiago, datorren astekarian jasoko ditugu.

Aitzaga babesteko deia

Sutegiko hitzaldian bestalde, Aitzaga Elkarteari babesa adierazteko elkarretaratzea iragarri zuten, asteazken honetarako, martxoaren 12rako. 19:30etan Aitzaga atarian. Madrilen epaitzen ari diren Ezker Abertzaleko ordezkari eta herriko tabernen auzia amaitzeaz den honetan deitu zuten aipatu mobilizazioa.



Birtualki izan bazen ere, Xabier Mikel Ezkerra Sutegin izan zen, martxoaren 6ko mahainguruan.

Laburrean

Soinurbileko lipdub-aren grabazioa, ostegunean

Ostegun honetan, martxoaren 13an grabatuko da, 18:00etan Zumarte inguruan. Jendetsua izango den ekimenean parte hartu nahi duenak, musika eskolara agertu dadila, arratsaldeko 17:45etarako.

Giza katerako izen-ematea, ostiralean Sutegi atarian

Ekainaren 8rako Geure Esku Dago bilguneak deituriko ekimenean izen emateko aukera egongo da, ostiral honetan, martxoaren 14an, 18:30-19:30 artean, Sutegi atarian jarriko duten informazio mahaian.

Lineako patinen ikastaroa Aginagan

4 eta 12 urte arteko haurrentzat, Aginagako frontoian. Asteazken arratsaldetan, 16:45-17:45, eta 8 asteko ikastaroa izango da. Izena emateko: Ana (636531650). San Praixku guraso elkarteak antolatuta, Usurbilgo udalaren laguntzarekin.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordintzaileak:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Katea lotzeko, edo askatzeko

Inoiz esango zenuke kate batek askatzeko balio dezakeenik? Esango nizuke ezetz, kateak irmoak, hautsiezinak, gogorak direla. Esango nizuke pertsonak edo animaliak lotzeko balio dutela. Zerbait, norbait, kontrolpean izateko tresna huts direla.

Eta esango nizuke kateatuta bizi denak soilik uler dezakeela zer den kateatuta bizitzearen etsipena. Nahia eta ezinarena. Askatasuna nahi eta, ahaleginik handiena eginda ere, lotuta, menpeko izaten jarraitzearen etsipena.

Ez da beharrezkoa burdinezko kateekin lotuta egotea kateatuta egoteko. Eta ez zaitez nahastu: eskuak burdinez lotuta inoiz eduki ez izanak ez du esan nahi kateaturik ez zaudenik. Kateak izan baitaitezke sozialak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak, fisikoak zein psikologikoak. Eta inork ez du nahi hori ez bere

buruarentzat, ezta lagunentzat ere, ezta?

Zer dira kateak? Zerbait inposatuta direla etorriko zaigu burura. Edo hala datokit niri. Garaileak garaituari jarritakoak direla. Baina kateak izan daitezke askeak. Kateak izan daitezke askeak, horren katebegi borondatez zaren heinean. Eta orduan, burdinezkoak beharrean, gozoak, bigunak, alaiak dira kateak. Kate baten parte izateak sentiarazten zaitu, horixe, zerbaiten parte. Eragile. Aktibo. Gai.

Eta izan zaitezke zerbaiten parte, zure nahiaren arabera. Inplikazioa norberak markatzen du. Zuk soilik dakizu noraino luzatu nahi duzun eskua. Edo noraino eman dezakezun eskua. Esaterako, elkarri eskua ematen dion bikotea izan daiteke irmoa, hautsiezina, gogorra. Eta ez da keinu behartua, ez da biolentzia, gozoa eta konplizea baizik. Eta zer gerta-

tuko litzateke bik baino, jende gehiagok elkar hartzen badu? Osa dezakezu kalejira bat, adibidez. Eta festarako baino, kanpotik euren katea botea digutenei, gure kate propioa, gure lotura propioa osatu nahi dugula esaten badiegu? Zergertatuko litzateke kanpotik inposatuaren beharrik ez dugula aldarrikatzen badugu? Zergertatuko litzateke haiena ez dugula behar esaten badiegu? Geurea propioa egin nahi dugula oihukatzen badugu?

Hori da, hain zuzen ere, ekainaren 8an egin nahi duguna. Gure dena exijitu, hortzak erakutsi; hozka egiteko baino, irribarre egiteko. Gure esku dagoelako. Era alai, gozo eta konplize batean, alboz albo ditugunei eskua eman, eta indartsu garelako erakutsi. Lotura hori hautsiezina dela erakutsi. Milaka eskuk elkar hartzen dutenean, ez baitago batasun hori hautsiko duen inposaketarik.

Eta, behingoz, dagokigun bezala, elkar hartzen badugu? Zergatik ez planteatu? Zergatik ez konturatu dagokiguna eskatu dezakegula? Elkarrekin egin dezakegu bidaia, elkar ezagutzuz, elkarri eskua eman. Gure bidea egingo dugu, azkarrago edo mantsoago, baina egin egingo dugu. Zergatik ez diogu emango bidea gure eskuari? Zergatik ez diogu emango bidea gure eskuei, hala nahi baldin badugu?

Nola esango diogu ezetz halako gauza oinarritzokari? Etor daitezkeen etor dadila. Baina ez ditzatela titularrak gure izenean idatzi, ez badira, behintzat, guri galdetu ostean osatuak. Noiz galdetu dizute zerbait? Hori, gutxienez, merezi dugu. Edo ez? Nik hemen ditut bi esku alboan ditudane emateko, irmo eta hautsiezina. Ekainaren 8an hartuko dugu elkar, eskuak elkarri eman ez askatzeko balio dezakeen katea osatzeko.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | **Maialen Unanue** | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

Auzolan deialdia, Udarregi Ikastolatik

Zurgin, diseinatzaile, brikolaje eta abarren bila dabiltza ikastolan. Datorren ikasturtean, Haur Hezkuntzako espazioen antolaketa berri bati ekitekoak dira eta gela horietan egitura berri batzuk

jarri nahi dituzte. Horregatik luzatzen diete herritarrei, auzolanerako gonbita. Laguntzeko prest dagoen oro, eman dezala izena ikastolako idazkaritzan.

Udarregitik berri eman dutenez,

auzolan esperientzia honetan parte hartuko dutenak "ez dira bakarrik arituko, izan ere, Mondragon Unibertsitateko aholkularien gidaritzeta aholkularitza, ondoan izango dugu".



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Autodefentsa feminista ikastaroa, asteburu honetan Potxoenean

Emakumei zuzenduriko ekimenean parte hartzeko aurrez eman behar da izena, parekidetasuna@usurbil.net helbidean. Ikastaroa bi egunekoa izango da. Saioak martxoaren 14 eta 15 honetan; ostiral arratsaldeko 17:00etatik 20:30etara eta larunbat goizeko 9:30etatik 14:00etara Potxoenean. Maitena Monroyk zuzenduko du ikastaroa. Martxoaren 8ko egitarauaren baitan antolatuko duen Euskal Herria-Korsika topaketa:

Larraitz Lazkanoren erakusketa

Joan berri zaigun Emakume Langileen Nazioarteko Egunari begirako beste hitzordu bat; apirilaren 16ra arte Artzabalen bisita daitekeen Larraitz Lazkanoren erakusketa, "Emakumeen arteko begirada sinergikoak" izeneko erakusketa. "Euskal herritar emakume baten eta arabiar kulturako herri anitzeko hainbat emakumeen arteko elkar begirada sinergikoa proposatzen digu", Artzabalen bisita daitekeen artelan bildumak. Lazkanoren lan gehiago helbide honetan kontsulta daitezke: larraitzlazkano.blogspot.com



Maitena Monroyk zuzenduko du asteburu honetako ikastaroa.

Defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du DYA-k

Martxoaren 18tik apirilaren 10era. Saioak astean bitan izango dira; astearte eta ostegunetan, 19:30-21:30 artean, Oiarde Kirolegian. Matrikulazioa, 80 euro eta plazak mugatuak izango dira. Izen ematea eta informazio gehiago, 943 46 46 22 telefono zenbakian.

Ikastaroaren helburua, "erasotzaile posible baten gaindik ihes egiteko orduan baliagarri diren ezaugarrien eta abilezien ekarpena egitea da, eta egoera kritiko bati erantzuteko gai izatea, lehenda-

bizi, distrazioko eta autokontrolerako teknikak erabiliaz; eta eraso saihestezina bada autodefentsazkoak erabiliaz erasotzailea menderatzeko".

"Erasoak hazi egin dira, %24"

Defentsa Pertsonaleko Oinarriko Teknikak ikasteko saioetara, "edozein pertsonak joan ahal du, forma fisikoa edo adin zehatz bat izateko beharrik izan gabe". Kanean edota etxebizitzetan, halako erasoak %24 hazi direla ohartarazten dute DYA-tik, "eta bi sexuetakoa pertsonen eta adin guztietakoei eragiten die".

Euskal Herria-Korsika topaketa ospatuko da egunotan

Herrialde haren berri jasotzeko aukera egongo da, baita korsikarrek egoteko ere. L'Arcusgi taldekoak baitaiz Sutegira emanaldia eskaintzera. Gero kantu-afari baten bueltan irudikatuko da, Kantu Taldeak, ostegun eta ostiral honetarako antolatuko duen Euskal Herria-Korsika topaketa:

Martxoak 13, osteguna

19:30 Hitzaldia Sutegin: "Korsika. Gaur egungo egoera politikoa, soziala eta kulturala". Hizlaria: Joseba Alvarez Forcada. Sarrera, doan.



Joseba Alvarez arituko da hizlari.

Martxoak 14, ostirala

19:30 Kantu jaialdia Sutegin, L'Arcusgi korsikar musika talde polifonikoaren eskutik. Sarrerak aurrez eskuratu ahal izango dira; 5 eurotan, Lizardin. Edo egunetan bertan, 10 eurotan.

21:30 Kantu-afaria Irui sagardotegian, L'Arcusgi taldekoekin eta Kuxkuxtu txarangarekin. Txartelak salgai: martxoaren 9ra arte, Lizardin eta Artzabalen. Prezioa: 25 euro.



L'Ascurgi taldea arituko da ostiral honetan, Sutegin.

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021


EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182

ANTXETA
 taberna-jatetxea
 eguneko menuak ogitartekoak plater konbinatuak
 Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Teknologia berriekiko lotura estua dute DBH-ko ikasleek

UDARREGIKO DBH 2, 3 ETA 4. MAILAKO 140 IKASLEEI EGIN ZAIEN INKESTA BATEK HALA DIO

Ia denek dute mugikorra edo Interneta etxean. Bost minuturo mugikorrari begira daude, egunero ordu bate edo bi ordu Internetera konektatuta igarotzen dute. Teknologia berriok mendekotasuna eragiten dutela uste dute, baina era berean mugikorraren bidez sarera konektatuta egotea beharrezkoa zaie. Mendekotasun arazoan gainean informatuta daude eta arazorik izanez gero, badakite norengana jo laguntza eske. Hala diote behintzat, Usurbilgo Udalak aho batez onartu berri duen "Mendekotasunen Prebentzio-rako Usurbilgo I. Udal Plana" osatzeko Udarregi Ikastolako DBH 2,3 eta 4.mailako 140 ikasleei egin zaien inkesta bateko emaitzek.



Teknologia berriek mendekotasuna eragiten dutela uste dute, baina era berean konektatuta egotea beharrezkoa zaie.

Sarritan erabili bai, baina "engantxe" arazorik ez

Datu gehiago. Ikasle gehienek aitortzen dute Internetak eta mugikorrak "engantxea" sortzen dutela. Ezinbestekotzat jotzen dute, teknologia berri erabilera; Interneta mugikorrean izatea beharrezkoa iruditzen zaie. Probetxua ateratzen diote bai mugikorrari eta Internetari. Sarea erabilera desberdinetarako baliatzen dute; musika entzun, filmak ikusi, sare sozialetan parte hartu, informazioa aurkitu edo jolasteko. Baita besteak beste, whatsapp-ean aritzeko. Ikasleek aitortzen dutenez, gehienek ordu laurden baino gutxiago igarotzen dute mugikorrari begiratu gabe. Baina ia denek ustez, ez dute teknologia berri hauekiko mendekotasun arazorik. Ikasleek %2-3k baietz, arazorik baduela uste du.

Edozein kasutan ia denek ja-

INKESTA

"Ia denek jaso dute, arazo hauen prebentzio-rako informazioa eta ia denek dakite, laguntza beharko balute norengana jo"

so dute, arazo hauen prebentzio-rako informazioa eta ia denek dakite, laguntza beharko balute norengana jo.

DBH 2:

- %97ak dio mobilak engantxea sortzen duela.
- %54k 15 minutu baino gutxiago pasatzen ditu mobila begiratzetik hurrengo begiradara arte.
- %31 egunean ordu bate edo bi ordu egoten da Internetera konektatuta. %25a, 2-4 ordu artean.

- %85arentzat Internetak engantxea sortzen du.
- %70ari Interneta mobilean izatea beharrezkoa iruditzen zaio.
- %3ak substantzia, joko edo teknologia berriekiko mendekotasun arazorik duela dio; %2k ez daki; %95ak ezetz dio.

DBH 3:

- %94arentzat mobilak engantxea sortzen du.
- %77,73k 15 minutu baino gutxiago pasatzen ditu mobila begiratzetik hurrengo begiradara arte.
- %20 egunean 8-12 ordu artean egoten da Internetera konektatuta. %24,4 ordu bate baino gutxiago; %17,77 ordu bate edo bi ordu artean.
- %80arentzat Internetak engantxea sortzen du.
- %73,33ari Interneta mobilean izatea beharrezkoa irudi-

tzen zaio.

- %3,7ak substantzia, joko edo teknologia berriekiko mendekotasun arazorik duela dio; %93,3ak ezetz dio.

DBH 4:

- %92,86arentzat mobilak engantxea sortzen du.
- %67,7k 15 minutu baino gutxiago pasatzen ditu mobila begiratzetik hurrengo begiradara arte.
- %42,1ek egunean ordu bat edo bi ematen ditu Internetera konektatuta. %25,6ak 2-4 ordu artean.
- %90,1arentzat Internetak engantxea sortzen du.
- %72,5ari Interneta mobilean izatea beharrezkoa iruditzen zaio.
- %2,2ak substantzia, joko edo teknologia berriekiko mendekotasun arazorik duela dio; %1,4ak ez daki; %96,4ak ezetz dio.

Drogen kontsumoaren eraginaz ere ohartaraziak daude DBH-ko gazteak

DROGOMENPEKOTASUNARI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK ERE EGIN DITUZTE

Tabakoa, marihuana, hachisa, alkohola, speed-a, kokaina edota ketamina, substantziok kontsumitzen dira, 13-16 urte arteko gazteen artean. Hala diote, Usurbilgo Udalak onartu berri duen mendekotasun arazoei aurre egiteko prebentzio planaren baitan, substantzia legal zein ilegaleen edota teknologia berrien kontsumo eta praktiken gainean, Udarregi Ikastolako DBH-ko ikasleei egin zaien inkestako emaitzek.

Gazteek emandako erantzunetatik antzeman daitekeenez, badirudi kontsumitu baino ezagutza handiagoa dutela substantzion inguruan. Galde-tegi honen baitan hain zuzen, zer droga ezagutzen dituzten eta euren adin tartean zeintzuk kontsumitzen diren galdetu diete DBH 2,3 eta 4. mailakoei.

Ezagutzari loturiko erantzunetan aipatu dituzten substantzien zerrenda nabarmen luzeagoa da, kontsumoari loturiko erantzunetan adierazi dutena baino. DBH2koen kasuan adibidez, euren adinean ez dutela askorik kontsumitzen aipatzen dute.



DBH2n, adibidez, euren adinean ez dutela ia kontsumitzen aipatzen dute.

INKESTA

Drogen kontsumoen kalteez ere ohartaraziak daude. Badakite mendekotasuna edota buruko nahiz gaixotasun fisikoak sortzen dituztela

INFORMAZIOA ESKURA

Drogen kontsumoaren zergatiaz eta ondorioez ere galdetu

zaie aipatu hiru ikasturteotako ikasleei. Bai batean zein bestean, erantzun anitzak. Zergatiaz buruz galdetuta, honakoa aipatzen dute; "lagunen artean inportante sentitzeko, ondo pasatzeko", "bat hasten da eta gainontzekoek jarraitzen diote", "arazoez ahazteko", "gaizki zaudenean", "gustokoa delako", "hobeto sentiarazteko", "lotsa kentzen duelako", "besteen aurrean guaiarenak egiteko",

"esperientzia berriak izateko"...

Drogen kontsumoen kalteez ere ohartaraziak daude. Badakite, "dardarak" eragiten dituztela, bizitza laburtzen dutela, oroimena galdu, familia hautsi, antsietatea, mendekotasuna edota buruko nahiz gaixotasun fisikoak sortzen dituztela eta muturreko egoeretan, "koman bukatzea gaindosiaren ondorioz" edota heriotza eragin dezaketela.

Udalari zuzenduak dauden hainbat eskaera

Droga mendekotasunik edota substantziekin loturiko arazorik izango balute, nahikoa informazioa izan eta norengana jo badutela diote; psikologo, mediku, guraso, senide edo irakasleengana. Familia edota hezitzaileei buruz ere galdetu diete 13-16 urte arteko gazteei; droga kontsumoaren aurrean zer egiten duten.

Gurasoei dagokienez, gazteen esanetan, "desengantxatzen lagundu", laguntza eskatu, profesional baten-gana eraman, zaindu. Batzuk, maiz zer egin edo nola jokatu ez dakitela diote, ezer gutxi dakitela droga kontsumoari buruz... Denetarik erantzunak beraz. Baita hezitzaileek gai honetan egiten dutenaren inguruan ere; gurasoekin hitz egin,

arriskuez ohartarazi, laguntza eskaini edota aholkatzen ahalegintzen direla aipatzen dute. Drogen kontsumoa bereziki aisialdi tartean ematen denez, horri buruz ere galdetu zaie ikasleei. Ia zer egiten duten euren denboralibreak; lagunekin atera, musika entzun, bideojokoetan jolastu, kirola egin, lokalean egon...

Gazteek, Usurbilgo Udalarentzat ere badituzte hainbat eskaera. Herriko erakunde nagusiari ia zer eskatzen dioten galdetu zaie DBH-ko ikasleei. Denetarik; drogen salmentan debekatzea, aisialdirako azpiegitura gehiago, gai hau hitzaldi edo klaseen bidez lantzea, egoera hauen gaineko kontrol gehiago egotea...

Mendekotasun arazoaren prebentziorako plan berria du Udalak

Mendekotasunen Prebentziorako Udal Plana du Usurbilek lehen aldiz, otsailaren 25eko osoko ohiko bilkuran aurkeztu eta aho batez onartu ostean.

2017ra arteko plan honek, "mendekotasunen prebentzioaren eremuan prozesu bat abian jartzeko" tresna izan nahi du. Hurrengo urteotan Usurbilen burutu beharreko eskuhartzearen ildoak, helburuak eta ekintzak zehazten ditu. "Atal desberdinak jorratu dira, hots, drogen testuinguruaren inguruko hausnarketa, kontuan hartu beharreko lege-esparrua, oinarri teorikoak, egoeraren diagnostia, esku-hartzea bideratzeko proiektuak eta planaren ebaluazioa", azken osoko bilkuran onarturiko egitasmoak jasotzen duenez.

Besteak beste, plan honen ebaluazioan jarri nahi du arreta Usurbilgo Udalak, hobetzen joateko: "Ebaluazioaren alderdia indartu nahi izan da, udal planak jasotzen dituen proiektu eta ekintzen ebaluazioa egiteaz gain, planaren inplementazio prozesua bera ere ebaluatuko da eta baita planaren amaierako ekintzak ere. Hone-la, etengabeko hobekuntzak proposatu eta exekutatu ahal izango dira eta etorkizuneko esku-hartzeak eraginkortzeaz gain, egonkortzeko baldintzak indartuko dira".

Gaiarekiko ikuspegi zabalagoa
Mendekotasuna eragin ohi duten substantzia legal zein ilegalean aurrean prebentzioa bultzatuzetik haratago doa egitasmo berri hau. Ikuspegi orokorragoa du; alkoholak, tabakoa, kanabisak, kokainak, anfetaminak



Plana herri eragile eta udal zerbitzu ezberdinetako ordezkarien ekarpenekin osatu da.

UDAL AZTERKETA

"Azken urteotan ematen ari den fenomeno berriago bat ere aintzakotzat hartzen du; jokoak edo teknologia berrien erabilera eragiten ari den mendekotasun jarrerak"

edota beste droga ilegalean kontsumoak eragindako mendekotasun arazoak jorratzen ditu. Baina azken urteotan ematen ari den fenomeno berriago bat ere aintzakotzat hartzen du; jokoak edo teknologia berrien erabilera eragiten ari den mendekotasun jarrerak.

Onartu berri den udalerrri mailako

plan hau, herri eragile eta Usurbilgo zerbitzu ezberdinetako ordezkarien ekarpenekin osatu da, besteak beste Udarregi Ikastolako ikasleei egin zaien inkesta bateko emaitzekin. Udal sail desberdinen arteko koordinazio lan bat ere egon da plan hau lantzerako orduan.

6 proiektu, mendekotasun arazoaren prebentzioa lantzeko

Mendekotasun arazoaren inguruko diagnosi bat jasotzen du udal plan berri honek. Baita etorkizunean, alor honetan Usurbilen bideratu daitezkeen sei proiektu ere. Hauexek:

- **1-Prebentzioa ikastetxeetan:** Usurbilgo ikastetxeetan osasunerako hezkuntza sustatzeko programak sustatzea eta garatzea 3 programen bidez: drogomenpe-

kotasunen prebentzioa jorratzeko programa, hezkidetzaz egitasmoa eta sexu-heziketa programa.

- **2-Guraso edota hezitzaileen formakuntza.**
- **3-Eskaintza arduratsuan formakuntza:** aisialdia prebentzio gune bilakatzeko drogen arazoak jorratzea eta kontsumo kaltegarrien eragina lantzea. Drogen gehiegizko kontsumoa ekiditea.
- **4-Aisialdi eremuan sentsibilizazioa jorratzea herritar eta eragileekin.**
- **5-Festetan drogen kontsumo arduratsua bermatzeko bitartekoak eskaintzea.**
- **6-Teknologia berriak eta mendekotasunen prebentziorako, formakuntza eskaintzea ikastetxeetan eta herritarrei oro har.**

55 usurbildar, 25. Lilatoian

53 emakumeek lasterka, eta beste bik patinen gainean osatu zuten, Donostia erdigunea eta Gros inguruak lotu zituen bost kilometroko ibilbidea. Batzuk bana-ka, baina beste hainbat koadrilan at-era ziren. Eguraldia eta giroa, primerakoa. Guztira, 3.150 emakume lasterka, Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren biharamunean, 117 gehiago patinen gainean.

Patinetan:

00:20:10 BELEN VICENTE MODRON
00:20:10 VANESSA VICENTE MODRON

Lasterka:

00:22:55 ROSA URIBE NAVARRO
00:22:55 ELHUIAR URDAMPILLETA
00:23:22 IONE IRURETAGOIEÑA EZEIZA
00:23:22 IDOIA EZEIZA IRURETAGOIEÑA
00:25:17 INES MARTINEZ COBO
00:25:49 MAITANE EIZAGIRRE BRUÑO
00:26:01 ELISABET APERRIBAI BASTERRETXE
00:26:01 MARIA ARANZAZU EZEIZA
00:27:13 MAIER TAPIA ALKORTA



Lasterkarien artean, koadrila honetako kideak irten ziren.

00:27:58 ENERITZ AGIRRE URDANGARIN
00:28:02 ARANTZA ESNAOLA HERNAIZ
00:28:25 LARRAITZ IZAGIRRE AGIRREZABALA
00:28:33 ARANTXA ARAOLAZA ZUMETA
00:28:46 IRATXE BEGIRISTAIN OTEGI
00:29:41 IDOIA KAPEROTXIPI ARRUTI
00:30:09 IZASKUN SASIAIN ARANO
00:30:41 ANA ANTON SONDESA
00:31:17 PALOMA HUGUET RODRIGUEZ

00:31:40 LOREA ARANALDE ARRUTI
00:32:08 LAURA FIORONI
00:32:19 ILAZKI GAINZA GIRALDO
00:32:26 NAGORE GONZALEZ IZAGUIRRE
00:32:26 MAITANE CAMBA SILVETI
00:32:34 IRATI PORTU ALZAGA
00:32:35 AINTZANE AIZPURUA APEZETXEA
00:32:59 NERE EIZAGIRRE AIZPURU
00:33:30 ANDREA ITURAIN AIZPURUA
00:33:30 MARIMAR MARTIN CARPIO

00:33:30 VIRGINIA HERRERA GOMEZ
00:33:30 ARBIL JAUREGI AGIRRE
00:33:32 AINHOA MANSO MURILLO
00:34:20 YOLANDA ARRIETA MALAXETXEBARRIA
00:34:23 LEIRE DIAZ VENTURA
00:35:38 MAITE SANTAMARIA TEJEDOR
00:35:41 JOSUNE ARRUTI ARREGI
00:35:45 HAIRA RIVERO ARRIETA
00:35:47 LURDES SALABERRIA GARMENDIA
00:35:52 ENERITZ GODINEZ ALKORTA
00:36:46 ANE IZASKUN ARANBURU LEIVA
00:36:48 ALAZNE OLAIZOLA IPARRAGIRRE
00:36:48 JOSUNE ESTELLA ARRANZ
00:36:48 AITZIBER EIZAGIRRE ZALDUA
00:36:48 OLATZ ZULOAGA SEGUROLA
00:36:49 JOSUNE IPARRAGIRRE TOLARETXIPI
00:37:06 MAITE ITURBE BARRENA
00:37:41 M. MERCEDES AMPARO SALDAÑA
00:37:51 LARRAITZ MATXAIN ODRIOZOLA
00:42:51 JUGATX AGIRRE ZUBIZARRETA
00:42:51 AINHOA AIZPURUA CANSECO
00:42:51 LAIDA GONZALEZ IBIRRIAGA
00:42:51 ANE EGUES MARTIN
00:42:52 ANE IRAZUSTA LARREA
00:42:52 MAIALEN UNANUE IRURETA

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA MARTXOAK 24, ASTELEHENA - POTXOENEAN

1. deialdia 19.00etan / 2. deialdia 19.30etan

GAI-ZERREDA:

- 1) 2013ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2014ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

Espetxe Pastoralta, hain beha

Espetxe kontuez hitz egin izan dugunean, preso politikoetaz hitz egin dugu beti. Gatazka politikoak isla handia izan duelako espetxean. Baina badira bestelako motiboengatik espetxeratuak izan direnak. Horiengan ez dugu inoiz erreparatu. Usurbilgo Espetxe Pastoraltzaren berri izan genuen duela gutxi. Eta orduan jabetu ginen badirela preso sozialetaz kezkatzen diren pertsonak. Euren borondatez. Inork eskatu gabe. Isila izanik ere, lan garrantzitsua eginez.

NOAUA! Zer da Espetxe Pastoralta?

Mari Karmen Mitxelena. Gaurko egunean, Elizak erakunde asko dauzka. Eta batzuk oso ezagunak dira, jendearentzat akaso ezagunena Caritas izango da. Badira gaixoak zaindu edota bisitatzen dituztenak ere. Guk Espetxe Pastoraltzan hartzen dugu parte. Herri asko daude hor sartuta. Usurbilen, Itziar hasi zen duela 20 urte inguru, eta ni geroxeago. Nik orduan ez nekien Eliza espetxeetara joaten zenik. Pixkanaka, mundu horretan sartu ginen. Tarteka, gure batzarrak izaten ditugu Gipuzkoa mailan.

N. Asteburuetan joaten zarete, ezta?

M.K.M. Baimen berezi bat dugu. Madrilatik jasotzen dugu baimen hori. Bestela ezin zara sartu. Joan gaitezke larunbategi edo igandetan. Igandetan adibidez, 10:30etik 12:30era sar gaitezke. Gu presoekin egoten gara. Ez bis-a-bis eta horrelakoetan, gu espetxe barruraino sartzen gara, patioan, mezan egoten gara eurekin.

Itziar Illaramendi. Espainia osoan ez dago parekorik. Ez



“Preso sozial gehienek arazo latzak dituzte, inor ez daukate inguruan”

Mari Karmen Mitxelena eta Itziar Illaramendik 20 urte egin dituzte Pastoraltzan.

dugu asko-asko ezagutzen beste lurraldeetako errealitatea, baina uste dut Euskadin bagarela ondo funtzionatzen dugun talde batzuk.

M.K.M. Eta Euskal Herrian, Gipuzkoan dago sare garrantzitsuena nik uste. Espainiako espetxeekin alderatuta ere, Martutene hain zahar eta zatarra izanik ere, eurentzat lau izarretako hotela diote presoek. Batik bat tratuaengatik, eta Pastoraltzakoek egiten dugun lanarengatik.

I.I. Apaiz gazte martxoso bat dago orain Martuteten, eta asko maite dute.

Bi motatako presoak bereizi ohi ditugu. Politikoak eta sozialak.

I.I. Lege aldetik, dudarik gabe, preso sozialak eta preso politikoak daude. Guk, ordea, barruan sentitu izan duguna izan da bi motatako presoak daudela. Familia, herria, lagunak, talde politikoa... Horien guztien babesa dutenak. Horiek politikoak dira. Eta besteak dira sozialak. Egia da preso sozialetako batzuk lagun eta familiaren berotasuna ere jasotzen dutela, baina oso gutxi dira. Gehienek arazo latzak dituzte, inor ez daukate inguruan.

M.K.M. Baztertutakoak erabat.

I.I. Ezer galtzekorik ez, eta arazoez gainezka. Haiengana iristea guretzat izan da benetan oso garrantzitsua.

Horrelakoetan sentitzen duzue funtzio bat betetzen duzuela, ezta?

I.I. Besarkada baterako aukerarik ere ez dute. Eta ez espetxean daudelako. Kanpoan ere ez dute hori topatzen.

M.K.N. Eta askotan etxekoekin harremanak etenda dituzte. Pastoralta talde bakoitzak bere herrikoetan erreparatzen du batez ere. Gu hasi ginenean horrelako usurbildar bakarra zegoen. Ez zeukan familiarekin harremanik. Orain ez dago Martutenen, beste espetxe batean dago. Gutun bat idatzi digu duela gutxi eta “zu eta Itziar zarete nire familia bakarra” jartzen zidan. Eta harrentzat hala da.

M.K.M. Orain lau ditugu usurbildarrak. Lehen droga munduarekin zerikusia zutenak izaten ziren, eta orain tratua txarrak direla...

I.I. Baina denetan alkohola dago tartean, Mari Karmen. Denek drogekiko menpekotasun-arazoa dute, alkohola bane. Ez dute ezer galtzekorik eta bakarrik daude. Eta horiek

eskertzen dituzte animo batzuk, norbaitek entzuten diela sentitzea... Gure Pastoraltzaren tratuaekin, pertsonak sentitzen dira.

Egia da beren ekintzak ez ditugula onartzen, eta horretaz ere hitz egiten dugu beraiekin. Baina hortik kanpo, euren baitan, pertsonak topatzen ditugu. Argiak eta itzalak dituzte, denok ditugun bezala. Beraiek itzalak ikusten dituzte batez ere, baina beren barruan argitasuna ere badute.

Kanpotik barrura, eta barrutik kanpora

NOAUA! Preso sozialen familiekin zubi-lana egitea ere bada zuen eginbeharra.

Mari Karmen Mitxelena. Familia batzuekin ezinezkoa egin zaigu. Saiatu izan gara, gure laguntza eskaini diegu... Baina hori ere ulertu egin behar da, familia horiek sufrimendu handia jasan dute. Eta horrelakoetan oso zaila egiten da. Baina beste batzuekin oso harreman ona izan dugu.

Askotan pentsatu izan da, ezta? “Nolako familiatakoak diren”, baina familia normaletakoak ikusten ditugu han espetxean. Ezagunak, Usurbilgoak izan direnak, eta orain han daude, han daudenez.

Zubi-lan hori beraz, familia askok eskertuko dute.

M.K.M. Bai, izugarri gainera. Zu joan bazara hara, etortzean deitu egiten diezu eta saiatzen zara bereziki gauza politikak kontatzen...

I. I. Kanpotik barrura, eta barrutik kanpora. Tokatu izan zaigu bai, zenbait sukaldetan malkoak partekatu beharra, eta asko eskertzen dute. Auzokoarekin edo lagunekin izaten ez dituzten konbertsazioak izaten dituzte gurekin. Maila horretan eskertzen dute asko. Oso momentu bereziak izaten dira.

arrezkoa den lana eginez

N. Ateratzen direnean, estigma handia bizi al dute?

M.K.M. Gero eta gutxiago.

I.I. Drogarekin harrapatu badi-zue, tira, ez da ezer pasatzen. Baina kartzelatik kartzelara pasatzen baduzu bizitza osoa, kanpora atera eta gutxira lapurreta egin duzulako... Horiek ate guztiak itxita dituzte gero.

Kaleratzen dituztenean, laguntzen al zaie?

M.K.M. Gu saiatzen gara ikastaroetara eta bestelako laguntzetara bideratzen, Elizak ere aterpeak ditu eta hor toki egiten zaie... Baina gero berriro beste ekintza bat egin eta barrura. Horregatik lan hau egin behar duzu baina esperantza gehiegi gabe.

Gabonak nolakoak izaten dira zuentzat, eta eurentzat?

M.K.M. Gabonak etortzeko garaian, parrokia guztietan kanpaina bat egiten dugu. Jendea kontzientziatzen dugu eta egiten dira gauza konkretuak.

Barrengo arropak, galtzer-



“Usurbildarrek oso ondo erantzuten dute Gabonetako kanpainan”.

DROGEN KALTEAK

“Barruan, inongo kontsumorik gabe ezagutzen ditugunean, benetan beraiek dira”

diak... eta dirua ere ematen diegu. Tabakoa, zigiluak eta abar. Jendeak dirua ere jartzen du. Eta guk, diru horrekin, hilabetero premia duten horiei 30 euro jartzen dizkiegu, tabakoa eta kafesne batzuk hartzeko sikie-

ra. Gabonetako kanpaina horretan gauza asko biltzen da eta Gabon egunean, preso bakoitzari otar eder bat ematen zaio, barruko arroparekin, turrroiarekin, pilak... Horrelako gauzekin.

Pilak, adibidez. Detalle oso xumea da baina beraientzat oso inportanteak, ezta?

I.I. Eurentzat oso inportantea da baten bat eurekin ardurtzen dela pentsatzea. Eta bada-ki Usurbilgo elizan kanpaina

bat egin dela eta horko dirua berarentzat arropa edo zapatila batzuk erosteko izan dela. Ez garelara Mari Karmen edo ni, Usurbil bezalako herri txiki bat dela “non zuek ere bazarete zerbait guretzat” esatera datorrena.

M.K.M. Jendeak oso ondo erantzuten du gainera. Eta Caritasek ere lagundu egiten digu, hori ere esan behar da. Preso politikoei ere laguntzen zaie urtero Gabonetan. 200 euro ematen zaio famili bakoitzari.

I.I. Gutxienez bidaiaria bat ordaindu dezaten.

M.K.M. Eta (Gipuzkoatik) kanpoan daudenekin, harremana kartaz izaten dugu.

I.I. Kartaz. Politikoei beti liburuak bidaltzen dizkiegu.

Eta eskertuko dute.

I.I. Noski, izugarri. Ikasi, irakurri, ikasi, irakurri... Horretarako hartzen dute denbora. Eta bidaltzen diezun guztia irakurtzen dute, eta eskertzen dute izugarri. Oraindik bidaltzen dizkiegu.

“Erraztu ez digute ezer egiten”

Zazpi ate zeharkatu behar izaten dituzte. Asteburutan, bisitan joaten direnean, Pastoraltzakoek ere neurri zorrotzak topatu ohi dituzte. Urte hauetan guztietan, gauzak ez dira beti samurrak izan Pastoral-tza eta espetxeko agintarien artean. “Zuzendaritza nolako den”, aipatu digu Mari Karmen Mitxelena. “Lehenago bilera izan genuen Pastoral-tza gabiltzanek. Espetxeko oraingo kapilauak esaten zuten zuzendaria oso jatorra dela eta erraztasun guztiak ematen dituela. Funtzionario gehienek ere bai, baina badira batzuk petralak direnak eta horrelako bat tokatzen bazaizu horrela tratatzen zaitu”.

Itziar Illarramendiren ustez, Elizak espetxean sartzeko eskumena du,

“alde horretatik eskerrak ematekoa da. Pribilegiatu bakarra da Eliza. Baina bestetik, muturrak baino ez dituzu ikusten. Ez duzu inongo funtzionariorik topatuko, *buenos dias!* esanez. Nik uste dut molestatu egiten dugula. Erraztu ez digute ezer egiten. 20 urteotan arazorik ez dut izan, baina aurpegi goxorik ere ez”, adierazi digu Itziarrek. Inspektora jatorriker topatu dute urteotan. “Huraxe emakume normala ikusi nuen”.

Esan bezala, garai ezberdinak ezagutu dituzte. Mari Karmenek dioenez, “garai batean, nahiginituen kutixi guztiak sartzen genituen. Mojei ematen genizkien, eta mojek banatzen zituzten gero”. Itziarren esanetan, “askoren ama modukoak dira mojak, han, Martutenen”.

Aita Menni ospitala

Denbora batean Martutenen izan dute, usurbildar gazte bat preso. Eskizofrenikoa da. 11 urteko espetxe zigorra ipini berri diote. Orain Arrasaten dago, Aita Menni izeneko psikiatrikoan. “Behin sententzia eman ondoren, Sevilla edo Valentiako espetxeetara bidali ohi dituzte horrelako presoak. Eta gu gure artean, baina nola? Mutil hau ez da kartzelan egotekoa, behar duena tratamendu egokia da”, Mari Karmen Mitxelena azaldu digunez.

Deskudioan, telebistan topatu zuten soluzioa. Arrasateko Aita Menni esperientziaren berri ematen ari ziren albistegian. Psikiatriko bat da Aita Menni, eta mojek kudeatzen dute. “1,3 milioi euroko inbertsioa egin dute elkarlanean Aita Menniko zuzen-

daritzak, Audientzia Probintzialak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Gaixotasun mentala duten eta justiziarekin arazo larriak dituzten horientzako modulu bat jarri dute martxan”.

Estatu osoan bakarra omen da. Hango zuzendaritzarekin harremanetan izan dira eta gazte usurbildar hau Valentzia edo Sevillako kartzelara bidali ordez, Aita Mennira biderratu dute azkenean. “Pozik gaude”, adierazi digu Mari Karmen Mitxelena. Kartzela baino zorrotzagoa izango da Arrasateko Aita Menni, diziplina eta beste. “Baina bere osasunerako, hori izango da onena. Hor bai jasoko duelako tratamendu egokia. Eta kartzelan jarraituz gero, oso zaila zuen bergizarteratzea”.

Desafio ikusgarria, Kilometroak-en alde

Urriaren 5ean Orion ospatuko den Kilometroak jaialdia girotzeko Kirol Erronka ikusgarria antolatu zuten larunbat goizean Orion. Etxeko, Zarauzko, Tolosako eta Usurbilgo punta-puntako hamaseiko kirolari taldea bildu zuten Herriko Plazaren bueltan. Udalerrri bakoitzeko lau ordezkari, beste hainbeste kirol jardueretan aritu ziren; Oriar igerian, bizikleta estatiko gainean pedalei gogor ematen, ergometroan izerditzen edota plazaren bueltan lasterka.

Usurbilgo taldea, Sarai Lizasok (ergometroan), Iñaki Añorgak (bizikletan), Ibai Albak (lasterka) eta Andoni Labakak (igerian) osatu zuten. Era berean, Labakak Kirol Erronkan parte hartzekoa zen Mikel Peñagarikano ordezkatu zuen. Ikuskitun bikaina eskaini zuten kirolariak, une ikusgarri bat baino gehiago. Bizikleta probak esate baterako. Lehian lau udalerrri izanik, bi txanda antolatu ziren.

ABRAHAM OLANO SASOI ONEAN DA ORAINDIK

Lehenengoan, Tolosa eta Usurbil aurrez aurre. Abraham Olano handiaren eta Baxurde Txiki Triatloi taldeko kide Iñaki Añorgaren buruz buruko saio ikusgarria gertutik ikusi ahal izan zuten, Oriara gerturatu zirenek. Beste hainbeste gertatu zen arraun proban ere. Ergometroan Sarai Lizasok dena eman zuen, aurkari zituen hiru gizonen aurka lehian. Lasterka bezala. Olanoren aurka Añorgak bizikleta gainean erdietsi duen bigarren postua eskuratu zuen baita, Ibai Albak. Orioko ordezkariak helmuga zapaldu eta 10 segundora amaitu zuen proba.

Kirol desafioa abiatu zuen igeriketa saioko partaideek berri, kontrolaezinak ziren baldintzei aurre egin behar izan



Usurbil ordezkatu zuten kirolariak: Iñaki Añorga, Sarai Lizaso, Ibai Alba eta Andoni Labaka.

KIROL ERRONKA

“Giroa ezin hobea izan zen Kirol Erronkan; eguraldi eguzkitsua eta jendetza batu zen Orion, besteak beste, usurbildar kirolari eta ikasleen saioak ikustera”

zieten. Ori alde batetik bestera zeharkatzen aritu ziren lau lehiakideek, erriko korrante gogorrei aurre egin behar izan zieten.

LEHIA BAINO, JAIALDIA

Lehia nagusitu zen kirol probetan, hori bai, jaialdi bat zela ahaztu gabe. Urriko lehen igandean Orion ospatuko den Kilometroak festaren aldeko kirol ekimena baitzen martxoaren 8koa. Urriaren 5ean antolatuko den Kirol Erronka girotzen hasiteko aitzakia. Eta giroa ezin hobea izan zen; eguraldi eguzkitsua eta jendetza batu zen Orion, besteak beste, usurbildar kirolari eta ikasleen saioak ikustera.

UDARREGI IKASTOLA, TXAPELDUNORDE

Helduen Kirol Erronka ospatu ostean, ikasleen txanda heldu

baitzen. Ori, Zarautz, Tolosa eta Usurbilgo ikastoletako ikasleak mosaikoaren proban lehiatu ziren. Tartean, Udarregi Ikastolako DBH 3-4 mailetako ikasleak, Sarai Lizaso taldeko kapitain zutela. Txapeldu-norde amaitu zuten, Orikoen atzetik. Hauek ere, 2014ko Kilometroak egunean ospatuko den Kirol Erronkarako prestatzen hasiak dira.

Sailkapen orokorra

- 1-Orio: 36:37
- 2-Tolosa: 37:03
- 3-Usurbil: 38:18
- 4-Zarauz: 38:21.

DENBORAK

Igeriketa:

- 1-Tolosa: 7:42.
- 2-Zarauz: 8:45.
- 3-Usurbil (Andoni Labaka): 9:04.
- 4-Orio: 9:11.

Bizikleta:

- 1-Tolosa: 5:58.
- 2-Usurbil (Iñaki Añorga): 6:29.
- 3-Orio: 6:31.
- 4-Zarauz: 6:48.

Ergometroa:

- 1-Orio (Sarai Lizaso): 10:11.
- 2-Tolosa: 10:32.
- 3-Zarauz: 10:44.
- 4-Usurbil: 11:51.


Lasterketa:

- 1-Orio: 10:44.
- 2-Usurbil (Ibai Alba): 10:54.
- 3-Zarauz: 12:04.
- 4-Tolosa: 12:51.

Itoitz Rodriguez, Espainiako txapelkun

Itoitz Rodriguez atletak 400 metro libreetako Espainiako Txapelketa irabazi du. “Sekulako balentria egin du 16 urteko gazteak”, Ion Lopezek aditzera eman digunez. “Orain arte jokatu dituen Espainiako Txapelketetan zorte txarragatik emaitza onik lortu ez badu ere, aurtengoan arantza kendu du Itoitzek eta sekulako erakustaldia emanez urrezko domina irabazi du”.

Denbora bikaina lortu zuen gainera. 48 segundo eta 99 ehuneko denbora eginda, berea zen Euskadiko jubenil (bere maila) eta junior (bera baino bi urte zaharagoak) mailetako errekorra gainditu zuen.



Urrezko domina ere lortu zuen Euskadiko jubenil mailako 200 m.

Sorturen urteurreneko batzarra

1 2 hilabete ko ibilbidea osatu du Sortu Usurbilek. Urteurren honi loturiko batzarra deitu dute larunbaterako, martxoaren 15erako, 10:00etan Artzabalgo ekitaldi aretoan. Bilkuran, gatazka konpontzeko Ezker Abertzaleak eginiko ekarpenez jardungo dute eta berriki Ezker Abertzaleak hausnarketarako plazaratu duen "Euskal Herria Bidean" dokumentua aurkeztuko dute. "Bilera irekia da, bere burua Sortukide ikusten duen edonorentzat zabalik egongo da", luzatu dute gonbita.

NOAUA! Sortuk urtebetean Usurbilen egin duen ibilbideaz zer ikuspegi duzue?

Sortu Usurbil: 12 hilabete hauetan gehienbat taldea egituratu eta martxan jarri dugu. Ez da zerotik hasi den gauza bat, zeren eta ezker abertzaleak Usurbilen beti izan du indarra eta beti martxan egon da. Baina nolabait, klandestinitate egoera batetik ofizialtasun batera pasa gara eta horrek eskatzen zuen, batetik, lana egiteko egitura berriak. Eta esparru berrietara ere iristen saiatzen ari gara. Bestetik, herriko beharrak jaso, udal taldeari helarazi, eta nazio mailako ildoetara lotzen gabilta. Askok dira eta lan handia eskatzen dute.

Usurbilgo EH Bilduko kidea da Sortu. Koalizioak etorkizuneko formula izaten jarraituko du?

Ondo baloratzen da koalizioa. Sorturen ildoetako bat elkarlana eta indar metaketarena da. Eta Euskal Herrian ezker eta abertzalea zabal da, anitza. Eta hori aberastasun bat bada Euskal Herriko ikuspegi politikotik. Une honetan gainera, oso garbi dago biltzen gaituena askoz gehiago dela bereizten gaituena baino. Eta bai gure aldetik eta bai beste indarren gaitik, sintonia handia dago, bai analisiak egiterakoan baita aurrera begirako pausoak markatzerakoan. Gainera komeni zaigu, ez bakarrik Euskal Herri mailan, herri mailan ere elkarlan hori positiboa da zentzu guztietan. Guretzat apustu bat da, horrek ere behartzen gaitu beste taldeekin sintonia bat bilatzera eta aberastasun bat ekartzen digu.



Larunbat honetan batzarra egingo dute. 10:00etatik aurrera Artzabalgo ekitaldi aretoan.

SORTU USURBIL

"Sorturen ildoetako bat elkarlana eta indar metaketarena da. Eta Euskal Herrian ezker eta abertzalea zabal da, anitza"

Aurtengorako deituak dauden giza-kate eta Eskozia zein Herrialde Katalanetako galdeketek, zer eragin izan dezakete euskaldunon erabakitze eskubidean?

Euskal Herria bizitzen ari den prozesu politikoen isla dira. Bai Kataluniarekin eta Eskoziarekin sumatzen dugu antzeko sententziak dituztela herrialde horietan. Lana eta herria nolabait esanda, hobeto egiten dela bertatik besteen pean egonda baino. Gainera azken urte hauetan Europatik bidaltzen diren aholkuak, aginduak ikusirik, horren aurrean ere indartzen digula subiranotasuna eta independentziaren ikuspegia. Guretzako badira erreferente argiak baina argi dugu Euskal Herriaren egoera zein den. Guk guretik abiatu behar dugu. Horretan dago azken hilabete hauetan sortzen ari den erabakitze eskubidearen aldeko hitzordua, Gure Esku Dago bilguneara. Hor ere eman da salto bat, eragile politikorik ez, ekimena herriarena da. Bide egokia dela ikusten dugu, eta herri-tarrak garen heinean babestuko dugu.

Ekimen zabal eta indartsua izango dela iruditzen zaigu.

Gatazkaren konponbidean zenbait urrats garrantzitsu eman dira azken aldian. Zer balorazio egin dezakezue?

Azken urteotan zorionez zabaldu da prozesu bat euskaldunon, abertzaleon aldetik, eta aldaketa asko ekarri ditu. Aldaketok beharrezkoa dute eskenatoki anitz eta zabal bat. Bide horretan sortu zen Aieteko mahaia eta Aieteko mahaia hainbat urrats eman zituen. Urrats horiek alde bat betetzen saiatu da baina beste aldea, etengabe gutxien, gaitzesten aritu da, eta kriminalizatzearen bideetik jo omen nahi dute. Horren atzean, aspalditik Euskal Herria ikusi den gauza bat dago; armarik gabeko garaia iristean, gai batzuk jorratu beharko direla. Eta argi dago Espainiaren partetik gai horiei ez zaiela heldu nahi. Horregatik prozesu hau oztopatzen ari dira. Irakurketa hori lehen oso mugatua zen sektore batzuetan. Une honetan, nazioartera zabaltzen ari da kontua. Izen handiko pertsonak daude prozesu honetan inplikatuak eta eurak ikusten ari dira Espainiako erantzuna etengabeko ezetza dela, itxia.

Legegintzaldia amaitzeko urtebete eskas falta da. Zeintzuk dira Usurbilgo Sorturen erronkak orain hasi eta 2015a bitartean?

Usurbilgo EH Bildun Sortu eta Ara-

lar daude. Oso indar metaketa positiboa da herriari eta egiten diren gauzei begira. Hainbat alorretan ari dira eta ondo, beti hobetuz. Sorturen aldetik EH Bilduko koalizioan proposamenak egiten jarraituko dugu. Aurrera begira, hondakinen gaian, bada lan ildo berri bat; sortzez besteko proposamena. Bestalde, EH Bildutik herria partaide egin nahi da erabaki politikoetan. Usurbilen ere bultzatzen ari dira prozesu parte hartzaileak. Datorenak; hirigintza plan orokorrari edota eskualdeko garapen integrari loturikoak. Jendeak parte hartzea eskatzen du, baina aukerak eskaintzen direnean horrekin behar dugu. Gainerakoan, herriaren mantenu lanak daude.

Urteurren batzarra

Larunbateko hitzorduan, "argipen ariketa egitea da gure asmoa". Orain arte, Ezker Abertzaleak konponbidearen alde eginiko urratsen gainera hausnarketa egin asmo dute; "Ezker Abertzaleak azken urteotan eman dituen aurrerapausoak, batez ere aldebakartasunarena, indar metaketarena, proposamen berriak". Eta etorkizunera begira ere jarriko dira.

■ Martxoak 15 larunbata.

■ 10:00etan, Artzabalgo ekitaldi aretoan.

X. Soinurbil, ate joka

HAURRENTZAKO ERROMERIA BATEKIN HASIKO DA, HILAREN 25EAN

Berezia izango da aurtengo Musika Astea, hamar urte bete baititu. Eta urteurrena, indartua datorren egitarauan nabaritu da. Martxoaren 25etik 30era, egunero izango dugu Soinurbili loturiko hitzorduren bat. Musika Eskolako taldeak protagonista izango dituzten emaldiak; tartean saio berezia, Rock-pop taldeena. Baita Kaxkoan zehar ospatuko den kantuz bustitako kalejira ere. Eta kanpotik bisitan datozkigu aurten ere, martxo amaierako Musika Astea; Andoaingo Musika Banda eta abesbatza, baita Zegama, Zerain, Segura eta Mutiloako ikasleak biltzen dituen Tobera Musika Eskolakoak ere.

Soinurbil Musika Astearen hamargarren edizio honetarako, logotipo lehiaketa antolatu dute. Intza Salsamendi usurbildarrak irabazi zuen txapelketa. Logotipo saritua berriz, ondoko irudian duzue. "Marka honek, Soinurbileko "S" hizkiaren forma erabiltzen du, "vinilozko" diska irudikatuz. Honek soinua adierazten du eta lau koloreen erabilerak mugimendua ematen dio. Borobiletan dauden geziek soinua Usurbilera hurbiltzen dute. Erabilitako tipografia informalak freskotasuna eta gaztetetasuna ematen dio", hala deskribatzen du Intza Salsamendik lehiaketara aurkeztu eta saria jaso duen logotipoa.

Diseinu berritzailea

Epaimahaiak, "lan irabazlearen balio artistikoa eta diseinu berritzailea nabarmendu ditu".

Martxoak 25-martxoak 30, musikaz gozatzeko astea

Martxoak 25, asteartea

18:00 Porru DJ-a, haurrentzako erromeria frontoian.

Martxoak 26, asteazkena

18:00/19:00 Organo erakustaldia Salbatore Elizan.

Martxoak 27, osteguna

18:30 Zumarteko taldeen eta Tobera musika eskolako emanaldia Sutegiko auditorioan.



Soinurbilen logotipo berria hauxe izango da. Argazkiaren erdian da egilea, Intza Salsamendi. Alboan ditu Zumarte eta Udaleko ordezkariak.

Martxoak 28, ostirala

19:00 Kalejira euskal abestiak kantatuz, Muxikokak taldekoekin.

Martxoak 29, larunbata

22:00 Rock-pop taldeen kontzertua frontoian.



Martxoak 30, igandea

Andoaingo Musika Banda (argazkian) eta abesbatza Usurbilen: 11:30 Kalejira. 12:30 Emanaldia frontoian.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Udala.

Zumarte Abesbatza, Hondarribian

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu duen musika koralaria buruzko asteburu-pasan hartuko du parte. Asteburu honetan, Hondarribian. "Koru-errepertorio erakarria, indarrez betea eta oso dibertigarria prestatuko dute", hala esan digute Zumarte Musika Eskolatik. Asteburuan zehar, abesbatza gain, Euskadiko eta Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusionista den eta haur eta gazteekin lanean esperientzia handia duen Jorge Pachecorekin gorputz perkusioa (body percussion) landuko da.

Guztientzat irekia izango den kontzertu batekin amaituko da asteburua. Kontzertua Amute auzoko elizan izango da arratsaldeko 17:00etan.

Laburbira, martxoaren 20an

Euskarazko 7 film labur proiektatuko dira, 75 minutuko emanaldia guztira, NOAUA! Kultur Elkarteak martxoaren 20rako, 19:00etan Sutegiko auditorioan antolatu duen hitzorduan:

- Abuztua. 2013 (17') Pello Gutierrez
- Aio. 2013 (10'04'') Oihan Amezua, Karlos Ibarbia, Netzer Bereziartua, Asier Sustaeta
- Euskaldun berriaren esketxa. 2013 (5'12'') Kepa Errasti
- Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa. 2013 (13'20'') Aitor Gametxo, Maider Fernandez Iriarte eta Maria Elorza
- Marilyn. 2013 (11'15'') Iñaki Beraetxe
- Plaza bakarra. 2013 (3'06'') Ion Vazquez Eizagirre, Carlos Alonso Dorrego, Ion Baratas Iglesias, Elbire Rico Játiva
- Sormenaren bide ezkuak. 2013 (15'36'') Lara Izagirre

Batzarra, martxoaren 24an

NOAUA! Kultur Elkarteak hilabete honetarako antolaturiko bigarren hitzordua; urteko Batzar nagusia. Martxoaren 24an, astelehen, iluntzeko 19:00etan hasita Potxoenean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

Futbolaz eta lagun arteaz gozatzeko



Markinako Artibai taldearen aurka bi partida jokatu dituzte Usurbil FTko beterranoek.

Gustuko zaletasunaz ez dira ahaztu, joan den irailan Haranera itzuli eta Usurbil FT-ko beterranoen taldea osatu zuten ondoko argazkiko kideek. Ostiralero biltzen dira futboleko jokatzeko eta lagun arteko bi partida ere antolatu dituzte Markinako Artibai Taldekoren aurka. Lehenengo neurketa abenduaren 22an jokatu zuten etxean, Haranaren. Ordukoa da ondoko irudia. Bigarren partida,

otsailaren 23an Markinan. Giro ederrean, futboleko jokatu eta hamaiketako ederra dastatu zuten. Amaieran, Usurbilgo taldearen izenean, Manu Urbietak oroigarri bat oparitu zien bizkaitarrei, beterranoen arteko topaketaren esentzia ederki asko deskribatzen zuen esaldi batekin; "Emaizak ez du jolasa ederragoa egiten, jolasak eta adiskidetasunak emaitza baizik".

Huizi eta Landa, Gipuzkoako Trinkete Txapelketako garaileak

Usurbilgo Huizi-Landa bikoteak Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finala irabazi du. Villabonako Arruti-Esnaola bikotearen aurka nagusitu ziren. 40-29 azken emaitza.



Iruran jokatu zen finala.

Santxo eta Urruzola, Euskal Herriko Ohorezko Mailako txapelak

Euskal Herriko txapelak berriak ditugu Xabier Santxo eta Julen Urruzola. Azkoitia jokatu zen Ohorezko Mailako finalan 22-16 irabazi zuten Amezetako Altuna eta Elustondoren aurka.



22-16 nagusitu ziren finalan.

Eskubaloia kiroldegian

Martxoak 15, larunbata

9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5B-Udarregi 5A
9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 6B-Urnieta 6A
10:30 Alebin mutilak:
Udarregi 6A-Urnieta 6B
11:45 Infantil neskak:
Udarregi A Usurbil-Trapaia Taberna Pulpo
13:00 Infantil neskak:
Udarregi C Usurbil-Leizaran B
17:15 Kadete mutilak:
Usurbil K.E.-La Bacaladera Hondarribia
19:00 Senior mutilak, 2. nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-Lau Bide Jatetxea

Martxoak 16, igandea

10:00 Senior neskak:
Usurbil K.E.-Aiala Zarautz
11:30 Jubenil neskak:
Usurbil K.E.-Zuazo

Futbola Haranen

Martxoak 15, larunbata

9:30 Benjamin topaketa: LH 3.
10:15 Benjamin topaketa: LH 4.
11:00 Alebin neskak: Udarregi 5A-Langile B
15:30 Neskak: Usurbil F.T.-Eibar S.A.D.
17:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Oiarzun K.E.

Martxoak 16, igandea

10:00-12:00 Futbol Eskola:
Usurbil F.T.-Beti Ona C.D.

Tximeletakoak, igande honetan Udaberri Txapelketan

Lehen fasea igande honetan jokatu du Oiarzongo kiroldegian. Goizeko 10:00etatik 13:15ak arte iraungo du gimnasia erritmikoko ikuskizunak eta Gipuzkoako kirol elkar-te ezberdinek hartuko dute parte. Tartean, Udarregi ikastolako ikasleek.

WHEEL ACADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak · Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

TAXI 24 h USURBIL

677 37 34 66 } Joxe
943 36 21 78 } Etxabe

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-

kalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldetan lagundu edo baserri-ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak asteleheneretan 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegilokartearen bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Jostekobi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suasalgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingoda. 637974994

Telebista salgai, Sony Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637.974.994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetek, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak martxoak 13-martxoak 23

Osteguna 13	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 14	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Larunbata 15	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Igandea 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Astelehena 17	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Astearte 18	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Asteazkena 19	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

Osteguna 20	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 21	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea 23	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Agenda martxoa

13 osteguna

- **Afari beganoa** Usurbilgo Gaztetxean, 20:30ean.
- **Hitzaldia: Kortsika, gaur egungo egoera politikoa, soziala eta kulturala**. 19:30 Sutejin.
- **Hitzaldia: elikadura ekologikoa ikastetxetan** 18:00 Udarregin.

14 ostirala

- **Autodefentsa feminista tailerra emakumeentzat** Potxoenean 17:00-20:30. Izen ematea: parekidetasuna@usurbil.net (doan)
- **L'Arcusgi taldekoen emanaldia** Sutejin 19:30ean eta kantu-afaria Iruinen.

15 larunbata

- **Autodefentsa feminista tailerra emakumeentzat** Potxoenean 9:30-14:00. Izen ematea: parekidetasuna@usurbil.net (doan)
- **Ziortzako udako kanpaldian izena emateko aukera** 11:00-13:00 Apaiz Etxean. ziortzage@gmail.com.

Astelehenetik aurrera, ekitaldi bete aste Gure Pakearen eskutik

Datorren astelehenetik aurrera, ekitaldi bete izango dute agenda Gure Pakea Elkarteko kideek. Hitzaldi, antzezlan, irteera eta bestelako ekitaldi osatutako asteaz gozatu ahal izango dute.

Martxoak 17, astelehena

17:00 Hitzaldia (erdaraz): "Sendagai generikoak". Hizlaria: Karmen Ariz.

Martxoak 18, asteartea

17:00 Hitzaldia (bi hizkuntzetan): "Arazo larriki-ko erreakzioa". Hizlaria: Rafael Kortabarria.

Martxoak 20, osteguna

16:30 Antzezlan: "Vivir en Villa Tatiritaina". Par-taideak. Oñatiko jubilatutako taldea.

Martxoak 21, ostirala

9:00 Irteera (Usurbilgo tren geltokitik): Zarautz-



Martxoaren 20an Oñatiko antzerki talde hau arituko da Gure Pakean.

Axkixu-Zumaia. Bazkaria, Zumaia jubilatutako elkar-tean. Prezioa: 18 euro.

Martxoak 23, igandea

12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-Berri sagardotegian. Sagardotegiko menua: 20 euro bazkideentzat, 27 euro gainerako jubilatuentzat. Izen ematea: martxoaren 13ra arte, Artzabalgo Gure Pakea Elkarteko bulegoan.

Jangeletako elikadurari buruzko hitzaldia Udarregin

"Zergatik elikadura ekologikoa Haur Eskolan eta ikastolako jangeletan?" izeneko solasaldia antolatuko dute Hitz Ahok, Haur Eskolako Guraso Taldeak eta Ekolapikok antolatuta. 0-16 urte arteko ikasleentzako aita-amei zuzendua dago. Martxoaren 13an osteguna 18:00etan, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Gastronomia beganoa ezagutzeko aukera berri bat

Usurbilgo Gazte Asanbladak afari beganoa antolatuko du hilean behin. Martxokoa ostegunetik aurrera martxoaren 13an, iluntzeko 20:30etatik aurrera Gaztetxean. Otordu goxo honetan, ohikoa den legez, borondatearen truke afortzen da.

Datozenak

Umeen autoestima hizpide Zubietan

Zubietako Guraso Elkarteak Nerea Menzibalen hitzaldia antolatuko du martxoaren 20an osteguna, 14:30ean Kaxkapen (frontoiaren ondoan). Doan izango da. Gaia: "2 urtetik 8 bitarteko umeen autoestima".

Martxoaren 22an, Gure Esku Dago Eguna

Martxoaren 22an, afaria eta bertso musikatuena saioa izango da gaztetxean. Sarre-erak erosteko azken eguna: martxoak 17 astelehena. 13 eurotan, Txapel-dun, Artzabal, Antxeta, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga, Txiriboga eta Patrín. Afalostean hasiko da bertso musikatuena saioa, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Iñigo Mantzisor (Mantxi) eta Manex Mujika bertsolariekin eta Ixak (kitarra) eta Gari (biolina) musikariek. Haritz Casabal arituko da gai jartzaile lanetan.

Martxoaren 29an, EHGAM-en afaria

Aurrez eman beharko dute izena, martxoaren 24a baino lehen 3035 0063 82 0630030222 (Laboral Kutxa). Prezioak: 24 euro afaria, 32 euro otordua eta Arratzain sagardotegira joateko autobusa. Ordainketak egiterakoan, ez ahaztu nork bere izen abizenak adierazteaz.

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbilgo MINTZALAGUN

praktikatu behar duzu?

Euskara ikasten ari bazara baina hitz egiteko lotsatzen bazara, mintzapraktika taldeetan parte hartu. Gurekin ondo pasatzeaz gain, zure euskara maila hobetuko duzu. **Eta den-dena DOHAINIK!**

lagundu nahi diguzu?

Euskalduna bazara eta ikasten ari denari laguntzeko prest bazaude, astean ordu bete eman dezakezu mintzapraktika egin nahi duten lagunekin, solasean eta giro onean.



Sustatzaileak



Usurbilgo Udala



Euskara Euskaltegia



www.noaua.com



praktikatu
mintzapraktika egitenok

INFORMAZIOA eta IZEN EMATEA Bete fitxa hau eta utzi Usurbilgo euskaltegian, NOAUAn edo euskara zerbitzuan.

☎ 607 609 379

🌐 mintzalagun.blogspot.com

✉ usurbil@aeek.org

📍 [mintzalagunak gara](#)

Kale Nagusia, 45 behea
20170 USURBIL

MINTZALAGUN IZAN NAHI DUT!

Izen-abizenak

Telefonoa(k)

Posta elektronikoa

euskaraz ongi egiten dut

mintzapraktika behar dut

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betelzearren; jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak PRAKTIKA JARDUERAK fitxategian sartuta daudela eta horren helburua dela praktika zerbitzuan izena ematen duten pertsonen kudeaketa. Datu horiek administrazio publikoari laga ahal izango zaizkie, goian zehaztutako helburuak betetzeko xedez. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitortu digu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.

Fitxategi horien erantzulea: EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA (AEK) bera da eta, horri dagokionez, hala nahi izanez gero, aipatutako Legean surreikusitako sarbide, zuzenketa, ezeztatpen eta aurkaritza eskubideak baita ditzakezu; horretarako Txakur Kalea 1, 4.a 48.505 Bilbo helbidera edo posta elektronikora eskaera bat bidali behar duzu. NA edo notorasuna egiaztatzeko beste agiri batekin batera.



Tapa eta aurkibideak **prest**



Agur esan diogu 2013 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2013ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.